

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL BILERA. AYUNTAMIENTO.**

**Organoa:** Udalbatza.

**Batzarra:** Ohikoa.

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Eguna:** 2025.01.09.

**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.

**Tokia:** Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Ladis Satrustegui Alzugaray jn.

**Zinegotziak:**

Argiñe Ordoki Urkixo and.

Gabriel Txoperena Alzugarai jn.

Uxue Royo Pozueta and.

Eneko Fernandez Maritxalar jn.

Izaskun Rodriguez Marichalar and.

Pello Astiz Elverdin jn.

José Luis Echegaray Andueza jn.

Ione Fagoaga Echarte and.

Jose Maria Portu Ochoteco jn.

Imanol Goienetxe Maritxalar jn.

**Ez da bertaratu:**

Inor ere ez.

**Idazkaria:** M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

**Organo:** Pleno.

**Sesión:** ordinaria.

**Convocatoria:** primera.

**Día:** 9.01.2025.

**Hora:** 19:00 horas de la tarde.

**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka.

**Asistentes:**

**Alcalde:** D. Ladis Satrustegui Alzugaray.

**Concejales:**

Dña. Argiñe Ordoki Urkixo.

D. Gabriel Txoperena Alzugarai.

Dña. Uxue Royo Pozueta.

D. Eneko Fernández Maritxalar.

Dña. Izaskun Rodriguez Marichalar.

D. Pello Astiz Elverdin.

D. José Luis Echegaray Andueza.

Dña. Ione Fagoaga Echarte.

D. José María Portu Ochoteco.

D. Imanol Goienetxe Maritxalar.

**No asiste:**

Nadie.

**Secretaria:** Dña. M. José Larrayoz Ariztegui.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa egingen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

*En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.*

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

**1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.**

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du, 2024ko azaroaren 28koa.

**2.-2025. URTERAKO UDALAREN AURREKONTUA OROKORRA: HASIERAKO ONESPENA.**

Espedientean ageri da udal-aurrekontu orokor eta bakarraren proiektua.. Bertan ageri da kontu-hartzaileak 2025eko urtarrilaren 3an egindako txostena.

Alkateak dio dokumentazioa 2024ko abenduaren 30ean bidali zela.

Geroa Bai taldeko zinegotzia den Ione Fagoaga andreak adierazi du bere alderdiak uste duela gastua handia dela, aurreko ekitaldiekin alderatuta asko igo dela eta partida batzuk falta direla herria mantentzeko. Hori dela eta, aurrekontuari zuzenketak aurkeztu zaizkio. Gaineratu du kontrako botoa emango dela, aurkeztutako zuzenketak aintzat hartzen ez badira”.

Alkateak erantzun du zuzenketak atzo aurkeztu zirela eta ez dela horiek aztertzeko astirik izan. Aurrekontua egitea kostatu da, baina proposamenak lehenago proposatzeko tartea egon da, izan ere, azaroko Hirigintza Batzordean aukera hori helarazi zen. Azpimarratu du orain zaila dela aztertzea, ez baita denborarik egon. Gastuaren

*Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:*

**1.-APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESION.**

*El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta de la sesión celebrada el día 28 de noviembre de 2024.*

**2.- APROBACIÓN INICIAL DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO PARA EL AÑO 2025.**

*Consta en el expediente el proyecto del Presupuesto General Único del Ayuntamiento. Figura en el mismo el informe emitido por el interventor el día 3 de enero de 2025.*

*El alcalde manifiesta que la documentación fue remitida el día 30 de diciembre de 2024.*

*La concejala del grupo Geroa Bai doña Ione Fagoaga manifiesta que su partido considera que el gasto es elevado, que en relación a los ejercicios anteriores ha subido mucho y que faltan partidas para el mantenimiento de la localidad, razón por la que se han presentado las enmiendas al presupuesto. Añade que el voto será en contra salvo que se consideren las enmiendas presentadas.*

*El alcalde contesta que las enmiendas se han presentado ayer y que no ha habido tiempo para analizarlas. Ha costado elaborar el presupuesto pero ha habido margen para proponer propuestas antes, pues ya en la Comisión de Urbanismo del mes de noviembre se trasladó dicha posibilidad. Subraya que ahora es difícil analizarlo,*

hazkunderari dagokionez, esan du igo egin direla, baina diru-sarrerak ere bai, eta inbertsio asko daudela.”

Ione Fagoaga andreak denbora faltari buruz esan du asteartean aldaketak igorri zirela, eta beharrezko ikusten dituztela mantentze-lanetarako partidak: Herriko Etxea, kaleak...

Alkateak galdetu du ea beste norbaitek zerbait gehitzeko duen.

Beste ekarpenik ez dagoenez, puntua bozkatzeari ekin zaio; Eh-Bilduko zinegotzien aldeko 7 botoekin eta Geroa Bai taldearen kontrako 4 botoekin, Udaltzako honakoa erabaki du:

1.) Hasiera batean onestea Lesakako Udaleko 2025. urterako aurrekontu orokor eta bakarra, baita hura betearazteko oinarriak ere. Gastuak eta diru-sarrerak 6.224.462,21 euroko kopuruan orekatuta daude. Andra Mari Zahar-Etxea Erakunde Autonomoarenak, berriz, 1.281.582,00 euroko kopuruan orekatuta daude eta 471.800,00 euroko kopuruan Oilartegi S.L.rena.

2.) Espedientea udal-idazkaritzan ikusgai edukitzea, hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarkitaulan iragarri eta gero, herritarrek edota interesdunek espedientea aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

*pues no ha habido tiempo. Respecto al incremento del gasto comenta que han subido pero también los ingresos y que hay muchas inversiones.*

*Doña Ione Fagoaga dice sobre la falta de tiempo que el martes se remitió modificaciones y que ven necesario partidas para trabajos de mantenimiento: la Casa Consistorial, calles...*

*El alcalde pregunta si alguien más tiene algo que añadir.*

*No habiendo más aportaciones, se procede a votar el punto; con los 7 votos a favor de los concejales de Eh-Bildu y los 4 votos en contra del grupo Geroa Bai, el Pleno acuerda:*

*1.) Aprobar inicialmente el Presupuesto General Único del Ayuntamiento de Lesaka para el año 2025. Sus gastos e ingresos están nivelados en la cantidad de 6.224.462,21 euros. Por su parte los del Organismo Autónomo Residencia Andra Mari están nivelados en la cantidad de 1.281.582,00 euros y en la cantidad de 471.800,00 euros los de Oilartegi S.L.*

*2.) Exponerlo en la Secretaría municipal por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen oportunas.*

**3.- UDALEKO, ANDRA MARI ERAKUNDE AUTONOMOKO ETA OILARTEGI S.L. ENPRESA PUBLIKOAREN 2025. URTERAKO PLANTILA ORGANIKOAK. HASIERAKO ONESPENA.**

Espedientean jasota daude Udalaren, Andra Mari erakunde autonomoaren eta Oilartegi SL enpresa publikoaren 2025eko plantilla organikoa.

Alkateak adierazi du Andra Marikoa aztertu zela Batzordean eta Olartegikoa ere bidali da. Galdetzen du baden zerbait hauen inguruan errateko.

Ione Fagoaga andreak erran du Andra Mari eta Oilartegiko plantillekin ez dutela arazorik, baino Udalekoarekin bai. Udalean, euren uztez, aurrekontuan bezala, gero eta langile gehiago daude eta ez dute ikusten horren justifikazioa. Gero Bai taldeko ikuspuntutik, langile gehiago dago, baina ez zaiote iruditzen behar denik hainbertze. Arkitektuaren inguruan, zalantza hauek aipatu ditu: Nasuvinsari, orduan, ez dira informeak eskatuko? Eskatuko dira? Bikoiztuko da gastua? Ez da bikoiztuko? Aipatu du ez dutela argi ikusten. Galdetu du, ez dakitelakoz seguro eta, akordiorik badagoen sindikatuekin edo ez; jartzen duela negoziatu dela, baina, negoziatu da gauza bat eta akordioa da bertze bat. Gaineratu du, orduan, ez dutela klaro ikusten eta ondorioz, euren bozka ezezkoa izanen dela.”

Alkateak erantzun dio Andra Mari eta Oilartegiko plantillari baietzkoa ematen dutela eta Udalekoa igo dela eta gehiegi iruritzen zaiotela.

**3.- APROBACIÓN INICIAL DE LAS PLANTILLAS ORGÁNICAS DEL AYUNTAMIENTO, DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ANDRA MARI Y DE LA EMPRESA PÚBLICA OILARTEGI S.L. PARA EL AÑO 2025.**

*Consta en el expediente la plantilla orgánica del Ayuntamiento, del organismo autónomo Andra Mari y de la empresa pública Oilartegi S.L. para el ejercicio 2025.*

*El alcalde comenta que la plantilla del organismo autónomo Andra Mari y de la empresa Oilartegi ya fue tratado en la respectiva Junta.*

*La concejala del grupo Geroa Bai doña Ione Fagoaga comenta que aprueban las plantillas del organismo autónomo Andra Mari y de la empresa pública Oilartegi S.L. pero no así la del Ayuntamiento cuya plantilla se aumenta, no quedando justificado tal aumento; pregunta si es necesario tanto personal y en caso de la plaza de arquitecto pregunta lo siguiente: ¿entonces no se solicitarán informes a Nasuvinsa? ¿o se pedirán? ¿se duplicará el gasto? ¿o no se duplicará el gasto? Dice que no ven claro el asunto. Pregunta también si existe acuerdo con la parte sindical, pues no lo tienen claro ya que se señala que ha habido negociación pero que una cosa es la negociación y otro acuerdo al respecto. Añade que no lo tienen claro y que el voto del grupo será en contra.*

*El Sr. Alcalde responde que aprueban la plantilla de Andra Mari y la de Oilartegi y que la del Ayuntamiento ha aumentado y que les parece*

Hauxe gaineratu du: "Pues ez dakit. Iritzi bat da hori ere, bai, baina eskatuko nizueke...Hau joan da solasten, komentatzen Ogasun Batzordeetan ere, ez da deus adierazi. Iduritzen zait pixkot bat tranposoa, nik horrela adierazi behar dut. Ailegatzea Pleno egunera eta orain erratea plantila sobera dela... Gainera, ez duzue aipatzen ze langile ikusten den soberan. Moztu dezakegu Turismoan, administrarietan, kale langileetan edo Idazkarian. Ez dakit zertan den sobera, zertan ez, baino bueno...Eta berdin erranen nuke arkitektoan. arkitektoan ere erran dugu, zein izanen ziren arkitektuaren funtzioak. Lehengo urtean ere, arkitektoarako diru bat gorde zen. Ez zen lortu inor. Aurkeztu zirenak ez zuten ateri postua. Hor, azkenean atzeratu da. Aurten ere, gastua reflejatu da iduritzen zaigulako inportantea dela. Arkitektua zer egin behar duen? Ahal baldin bada, Nasuvinsako karga bat kendu, Idazkariari lagundu, administratiboki ere lana arindu, berak hartu beharko dituelako txosten aunitzen redakzioak. Horrek ez du erran nahi ehunekoaren ehunean independenteak izan behar garenik Nasuvinsagatik. Ojala Nasuvinsaren gastua bajatzen ahal baldin badugu, hori da helburua. Nahiz eta saiatu garen pues pixkot zintzoak izaten eta partida hori oraingoz ez dugunez arkitektoak, hor errespetatzen. Gero, ikusiko da. Aurreikuspena da partida hori tikiagoa izan beharra dela. Arkitektuarekin berdin. Funtzio horiek Hirigintza Batzordean iada eztabaidatu ditugu."

Jose Luis Echegaray jaunak hauxe erran du: "Nik eskatuko nuke moderazio pixko bat

*elevado. Ha añadido: "Pues no lo sé. También es una opinión, pero les pediría... Esto se ha ido hablando, comentando incluso en las Comisiones de Hacienda, no se ha dicho nada. Me parece tramposo, y tengo que expresarlo así. Llegar al día de Pleno y decir ahora que la plantilla es excesiva... Además, no decís qué trabajador sobra, ya que podemos suprimir en turismo, administrativos, personal de la calle o Secretaría. No sé en qué está sobrado, pero bueno... Y diría lo mismo en el arquitecto. Ya lo hemos dicho sobre el arquitecto, cuáles serían las funciones del arquitecto. El año pasado también se reservó un dinero para el arquitecto. No se consiguió nadie. Los que se presentaron no obtuvieron el puesto. Ahí, al final se ha retrasado. Un año más, el gasto se ha reflejado porque nos parece que es importante. ¿Qué debe hacer el arquitecto? Si es posible, retirar parte de los trabajos de Nasuvinsa, ayudar al Secretario, aligerar administrativamente los trabajos, ya que será el encargado de recoger las redacciones de los informes. Eso no quiere decir que tengamos que ser independientes al cien por cien del porcentaje de Nasuvinsa. Si es posible se bajará el gasto de, ojalá, Nasuvinsa, ese es el objetivo, ojalá. A pesar de que hemos tratado de ser honestos y de momento no tenemos un arquitecto que respete ese partido. Después, ya se verá. La previsión es que esa partida tenga que ser más pequeña. Igual que el del arquitecto. Estas funciones ya han sido debatidas en la Comisión de Urbanismo. "*

*Don José Luis Echegaray ha dicho: "Yo pediría un poco de moderación con el lenguaje. Aquí es muy difícil distinguir quién es el tramposo.*

lenguajikin. Hemen tranposoa nor den bereiztea oso zaila da. Aisa erran du Alkateak gu garela tranposoak, baina ez al da alderantziz izanen? Zertaz guk ikusten duguna da noiznahi badirela persona berriak Udaletxean lanean, baina ez dugu inoiz ere ikusten ze Tribunalak berexi dituen, nor den Tribunalean egondu dena, zenbat diren kanpoko jendeak, oposiziotik ez dago inor ere, ez zaio abisten. Orduan, tranposoa, pixkot dudoso da nor den, eh.”

Alkateak hau erran dio:

“1.- Nik erran dut posizio tranposoa dela, ez persona tranposoa dela.

2.- Zer nahi duzu erratea... Tribunalak izendatzen dira, Tribunalak publikoak dira, Tribunaletan langileen ordezkariak egon dira beti, kenduta deialdi batean, ez zirenak egon eta beraiekin ere bildu ginen hori akklaratzeko. Eta, en fin, Jose Luis, erranen nizuke zuk zenbat urtez paratu duzun oposizioko jendea Tribunalean. Erranen nuke. Sin mas. Hor utzi behar dut. Ez dut eztabaida bat ireki behar ez duelako gehiagorik, baino nahi baduzue gaia horretara eramane, bale, ni ez naiz sartu behar.”

Jose Luis Echegaray jaunak hau erran du: “Nik egin dituzten kontratazio guztiak Udaletxe honetan, izandu dira: bi tekniko enpresa pribatukoak. bereizteko Gobernuko bat, oposizioneko bat eta gure alderdiko bat, obligazioa zelakoz Presidentea izatea. Eta bertzela, begitu prozesu guztietan. Eta harrautzen baduzu bat ez dena hórrela, abistu.”

*El alcalde, de manera fácil, ha dicho que nosotros somos los tramposos, pero ¿no será al revés? Lo que nosotros vemos es que en cualquier momento hay personas nuevas trabajando en el Ayuntamiento, pero nunca vemos qué Tribunal tiene, quién ha estado en el Tribunal, cuántas personas de fuera, ni siquiera hay nadie de la oposición, no se le avisa. Entonces, tramposo, es un poco dudoso quién es, eh!”*

*El Alcalde le dice:*

*“1.- Yo he dicho que es una posición trampa, no una persona tramposa.*

*2.- Qué quieres que te diga... Se nombran Tribunales, los Tribunales son públicos, en los Tribunales siempre ha habido representantes de los trabajadores, menos en una convocatoria, que no estuvieron y nos reunimos también con ellos para aclararlo. Y, en fin, José Luis, te diría cuántos años has puesto tú en la gente de la oposición en el Tribunal. Lo diría. Sin más. Tengo que dejarlo ahí. No tengo que abrir un debate porque no tiene más, pero si queréis llevar el tema a eso, vale, yo no voy a entrar.”*

*Don José Luis Echegaray ha dicho: “Todas las contrataciones que yo he hecho en este Ayuntamiento han sido de dos técnicos de empresa privada, para distinguir entre uno del Gobierno, uno de la oposición y uno de nuestro partido, porque era una obligación tener un Presidente. Y, además, en todos los procesos. Y si te ves en alguna que no ha sido así, avísame. ”*



Alkateak hauxe erantzun du: “Guk ere erraten dizugu gure Tribunalak izendatuak daudela, publikoak izan dira, Udaletxeko langileek parte hartu izan dute ere bai, eta nik horrekin dena erran dut. Hor daude denak. Onerako eta txarrerako Udaletxean uzten dugu marka, bai guk eta bai zuek. Bozkatzan da plantila ere bai, edo hiru plantilak. Ez dakit, banaka banaka egin behar diren edo...”

Idazkariak aipatu du bozketa orokorrean edo banaka egin dezaketela.

Alkateak hauxe gaineratu du: “Iduritzen zait Ionek matiza egin duela Andra Mari eta Oilartegin aprobaten direla aho batez eta Udalean izanen zen gure aldeko bozkak eta kontrako bozkak. Ez dakit horrela...Eta barkatu, hori jarri nahi nuen, hori ahortzi zaitela. Aipatu duzu langileen ordezkariekin aber negoziatu den...”

Ione Fagoaga andreak hauxe aipatu du: “negoziatu bai paratzen du, baina akordioa badagoen edo ez. O sea, akta ez dago. Orduan ez dakigu...”.

Alkateak Idazkariari eman dio hitza, zerbait aipatu nahi badu.

Ione Fagoaga andreak gaineratu du ez dela berdina negoziatzea edo akordioa izatea.

Idazkariak hauxe erran du: “Negoziatzen dira gaiak, adostu agian, baino akordioa, agian ez da lortzen. Eta ez da beharrezkoa kasu guztietan. Azken bilera egin zen abenduaren 23an, ez banago oker, eta txostenean agertzen da datu hori, bi postu berri horiena behinpin. Eta horretan ez zuten erreparorik jarri. Akta egina dut, ez dago sinatua, bino bueno,

*El alcalde ha respondido lo siguiente: "Nosotros también te decimos que nuestros Tribunales están nombrados, han sido públicos, han participado trabajadores del Ayuntamiento, y yo con eso lo he dicho todo. Ahí están todos; para lo bueno y para lo malo dejamos la marca en el Ayuntamiento, tanto nosotros como vosotros. Ya está. También se vota la plantilla, o las tres plantillas. No sé, hay que hacerlas individualmente o..."*

*La Secretaria comenta que pueden hacer una votación general o individual.*

*El alcalde ha añadido: "Me parece que Ione ha matizado que en Andra Mari y Oilartegi se aprueban por unanimidad y en el Ayuntamiento habría habido votos a favor y votos en contra. No sé si... y lo siento, quería poner eso, que te olvidaste de eso. Ha mencionado si se ha negociado con los representantes de los trabajadores..."*

*Dña. Ione Fagoaga comenta que "se dice que se ha negociado pero pregunta si ha habido acuerdo o no. O sea, el acta no existe. Entonces no sabemos..."*

*El Sr. Alcalde cede la palabra a la Secretaria si desea hacer alguna mención.*

*Dña. Ione Fagoaga añade que no es lo mismo negociarse que tener acuerdo.*

*La secretaria dice lo siguiente: "Los temas se negocian, se consensuan, pero tal vez no haya acuerdo. Y no es necesario en todos los casos. El día 23 de diciembre se celebró la última reunión, si no me equivoco, y en el informe aparece este dato, al menos el de estos dos nuevos puestos. Y en eso no pusieron reparos. Tengo el acta, no está firmado,*

printzipioz ez zuten inongo problemik jarri.”

Alkateak gaineratu du: ”hortxe gelditzen da aklarazio hori”.

3 plantilla organikoei buruzko bozketa hasi da, banaka:

- Andra Mari erakunde autonomoko plantilla organikoak 11 boto lortu ditu

-Oilartegi S.L. enpresa publikoaren plantilla organikoak 11 boto lortu ditu.

-Udaleko plantilla organikoak EH-Bilduko zinegotzien aldeko 7 boto eta Geroa Bai taldearen kontrako 4 boto jaso ditu.

Ondorioz, Udalbatzak, erabaki du:

1.) Hasiara batean onestea 2025. urterako Udaleko eta Andra Mari erakunde autonomoko plantilla organikoak, 1993ko abuztuaren 30eko 251/1993 zenbakiko Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 19. artikuluan xedatutakoa betez.

2.) Estatutu horren 20. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2024ko abenduaren 31n bi entitate horien zerbitzura dauden funtzionario eta lan-kontratadun langile finkoen zerrendak prestatzea.

3.) Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017ko zenbakiko Foru Dekretuak xedatzen duen gisan, euskaraz jakitea baldintza berariazkoa duten lanpostuak zein diren

*bueno, en principio no pusieron ningún problema.”*

*El alcalde ha añadido: "ahí queda esa aclaración".*

*Se inicia la votación con respecto a las 3 plantillas orgánicas:*

*-la plantilla orgánica del organismo autónomo Andra Mari obtiene 11 votos*

*-la plantilla orgánica de la empresa pública Oilartegi S.L. obtiene 11 votos.*

*-la plantilla orgánica del Ayuntamiento obtiene 7 votos a favor de los concejales de EH-Bildu y 4 votos en contra del grupo Geroa Bai.*

*En consecuencia, el Pleno acuerda:*

*1.) Aprobar inicialmente las Plantillas Orgánicas del Ayuntamiento, del Organismo Autónomo Andra Mari y de la empresa pública Oilartegi S.L. para el año 2025, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 19 del Texto Refundido del Estatuto de Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, aprobado mediante Decreto Foral Legislativo num. 251/1993, de 30 de agosto de 1993.*

*2.) Elaborar, conforme a lo establecido por el art. 20 del citado Estatuto, las relaciones de funcionarios y personal laboral fijo al servicio de ambas entidades, con fecha 31 de diciembre de 2024.*

*3.) Establecer, tal y como dispone el Decreto Foral 103/2017, que regula el uso del euskera en las Administraciones Públicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes, los puestos de trabajo en los que el conocimiento del vascuence constituirá requisito específico que deberá*



ezartzea, horietan sartzeko gaitasuna frogatu beharko baita.

4.) Udal Idazkaritzan espedientea ikusgai edukitzea hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-oholean argitaratu ondotik, herritarrek edota interesdunek aztertu eta bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik egiten ez bada, plantilla organikoak behin betiko onetsizat joko dira, jendaurrean erakusteko aldia igaro ondotik.

5.) Behin betiko onetsi ondotik, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

6.) Behin betiko onetsi eta hogeita hamar eguneko epean, plantilla organikoen eta lanpostuen zerrenden kopiak Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusira bidaliko dira.

#### **4.-2025ERAKO LAN EGUTEGIA ONARTZEA.**

2025eko lan-egutegia aurkeztu da, onets dadin. Bertan jasotzen da, orobat, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren laneko jaiegunen egutegi ofiziala, honako arau hau oinarri hartuta: 493/2024 Ebazpena, ekainaren 12koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2024ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena: (2024ko 145.

*acreditarse para poder acceder a los mismos.*

*4.) Someter el expediente a información pública en la Secretaría municipal, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de edictos del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las alegaciones que estimen pertinentes.*

*Si no se formularsen reclamaciones, las plantillas orgánicas se entenderán aprobadas definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública establecido.*

*5.) Que, tras su aprobación definitiva, sean publicadas en el Boletín Oficial de Navarra.*

*6.) Que en el plazo de treinta días tras dicha aprobación definitiva, se envíen copias de las plantillas orgánicas y de las relaciones de puestos de trabajo a la Dirección General de Administración Local del Gobierno de Navarra.*

#### **4.-APROBACIÓN DEL CALENDARIO LABORAL PARA EL AÑO 2025.**

*Visto el calendario laboral del año 2025, que a su vez recoge el calendario oficial de fiestas laborales, con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra, según se establece en la Resolución 493/2024, de 12 de junio, del director general de Economía Social y Trabajo, por la que se establece el calendario oficial de fiestas laborales para el año 2025 con carácter retribuido y no recuperable en la Comunidad Foral de Navarra (Boletín Oficial de Navarra número 145 de 16 de julio de 2024).*

Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 16koa).

Alkateak hau adierazi du: “Hau bidali zen, hau langileek egin duten proposamenaren gain izandu da. Matiz tiki bat jarri dugu hor behitian, beraiekin adostua ere bai, San Ferminetako egun horietan bai Brigadako langileak bai Albinteen egin beharko dutela lan, nahiz eta egutegian bertze kolore batez markatua egon. Momenturako, dakizuen bezala, Hitzarmen bat negoziatzen ari da eta hor erreflejatuko da nola ordainduko den konpentsazioa.

Ione Fagoaga andreak hauxe aipatu du: “Nik galdetu behar nuen haber seguru akordioa badagon. Zeren, joan den urtean baiezkoa erran zenuten eta gero ez zegoen akordiorik sindikatuekin. Eta ikusi dugu aldaketa hori, baina aldaketa hori bidali zaigu asteartean. Orduan, ez dakigu aurrekoa igual, akordioa badago, eduki beharko genuela uste dugu. Beraiek bidalia baldin bada. Baina bertze, naranjan paratu duzuen hori, ez dakigu ados dauden edo ez. Guk nahiago dugu, oraingoz behinpin, ezezko bozka eman, ez pasatzeko lehengo urtekoa.”

Idazkariak hauxe argitu du: “Egia da lehenbizikoan ez zela horrela. Hori gabe joan zela, aipamen hori gabe. Baina, bai behean jarria dagoela “baita ere, egun hauetan konpentsazioa eta zer zerbitzu eman behar den, langileen hitzarmenean zehaztuko da”. Hori da jarria, eta nik ikusten nuen hobeki gehitzea, eta hobekiago zehaztea lan egin beharko dutela eta proposatutako hitzarmena ez bada bukatzen, onartzen edo adosten edo azkeneko edukia bertzea izaten bada. Ba, hori, garbi uzteko. Hori da nik proposatutako aldaketa, eta horregatik bidali zen asteartean berriro zuzenketa. Langileen

*El Sr. Alcalde manifiesta: "Se envió sobre la propuesta que han hecho los trabajadores. Hemos puesto un pequeño matiz ahí en la parte de abajo, también de acuerdo con ellos, que esos días de San Fermín tanto el personal de la brigada como los agentes municipales tendrán que trabajar, aunque en el calendario esté marcado con otro color. Para el momento, como sabéis, se está negociando un convenio en el que se reflejará la forma de pago de la compensación."*

*Doña Ione Fagoaga comenta: "Yo pregunto si había acuerdo seguro. Porque el año pasado dijeron que sí y luego no había acuerdo con los sindicatos. Y ya hemos visto ese cambio, pero se nos ha enviado ese cambio el martes. Entonces, no sabemos lo anterior igual, si hay acuerdo, creemos que deberíamos tenerlo. Si es enviado por ellos mismos. Pero lo otro, lo que han puesto en la naranja, no sabemos si están de acuerdo o no. Nosotros preferimos, de momento, votar 'no' para no pasar lo del pasado."*

*La secretaria aclara: "Es cierto que en la primera no era así. Que se envió sin esa mención y decía que "como que la compensación y el servicio a prestar en estos días se determinará en el convenio de trabajadores". Eso es lo que se ha puesto, y yo veía que se añadiera el otro punto y que se especificara mejor que van a tener que trabajar y como determinarlo en el caso de que el convenio no se termine, ni se apruebe o no se pacte o su contenido final sea otro. Para dejarlo más claro. Esa es la modificación propuesta por mí y por eso el martes se volvió a enviar esa enmienda."*

ordezkariak proposatzen dutena da hori, hitzarmenean doan bezala ordaintzea, proposatzen dute ordainketa horrela egitea”.

Ione Fagoaga andreak hau erran du: “Beitikoak ulertzen dugu hagitz ongi, beraiek paratutako da. Baina goitikoak, nik behinpin, diferente ulertzen dut. Orduan, hitzarmena ez bada gero akordioarekin lan egiteko edo, eta goitian paratzen da baietz?. Behitian paratzen du besta izanen dela eta goitian paratzen du lan egin beharko dutela. Orduan, nik diferente ulertzen dut, eh. Eta horregatik da, ba, asteartean nola bidalia dagoen, haber hori, akordioa badagoen edo ez.”

Alkateak hau erran dio: “Hori da, azkenean aipatu dizuedan bezala, naranjazko hori izan zen, pixkat kasik, zuk ikusten zenuelako, ez, M<sup>a</sup> Jose?, hobe zela matizatu, eta modifikazio horrekin bidali zen berriz. Nik ulertzen dut esaldi bat eta bertze berdin erabiltzen dutela. O sea, lan egin behar dela eta egun horietan adostutako hortan konpentsatuko dela. Baina bueno. Eta bai, printzipioz adostasuna bada. Bisto lo bisto, nire izenean solastuko dut porsiakaso. Ordun bueno, hori, bozkatuko dugu.”

Bozketa egin da: EH-Bilduko zinegotzien 7 aldeko botoekin eta Geroa Bai taldeko 4 zenogotzien kontrako botoekin, erabaki da:

- 1.) 2025. urterako lan-egutegia onartzea, azken proposamenaren arabera.
- 2.) Baliogabeak izanen dira, epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak, eta jaieguntzat jotako egunak.
- 3.) Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratzea.

*Lo que proponen los representantes de los trabajadores es que se pague conforme el convenio, proponen que el pago se realice de esta manera ”.*

*Doña Ione Fagoaga ha dicho: "Entendemos muy bien lo de abajo, es lo que ellos han puesto. Pero lo de arriba, yo lo entiendo diferente. Entonces, si no hay convenio no es para trabajar con el acuerdo, entonces se dice que sí. Pone en la parte de abajo que va a haber fiesta y pone en la parte de arriba que van a tener que trabajar. Entonces, yo entiendo diferente.. Y por eso es cómo está enviado el martes. Pregunta si hay acuerdo o no."*

*El Sr. Alcalde le ha dicho: "Eso es, como les he comentado al final, lo de la naranja fue, casi un poco, porque tú lo veías, no, M<sup>a</sup> José, que era mejor matizarlo, y se volvió a enviar con esa modificación. Yo entiendo que utilizan una frase y otra igual. O sea, que hay que trabajar y en esos días se compensará en lo acordado. Pero bueno. Y sí, si en principio hay consenso. Visto lo visto yo hablo en mi nombre. Bueno, entonces votaremos."*

*Realizada la votación, la misma arroja 7 votos a favor de los concejales de EH-Bildu y 4 votos en contra del grupo Geroa Bai, por lo que se acuerda:*

- 1.) *Aprobar el calendario laboral para el año 2025 conforme a la última propuesta.*
- 2.) *Declarar inhábiles a efectos del cómputo de plazos todos los sábados, domingos y los días declarados como festivos.*
- 3.) *Proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del*

4.) Erabaki hau udal langile guztiei jakinaraztea, onartutako egutegiarekin batera.

Izaskun Rodriguez Maritxalar andrea ateri da bilera aretotik.

**5.-IZASKUN RODRIGUEZ  
MARITXALAR ANDREAK SUSTATUTAKO  
XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN  
BETIKO ONESPENA.**

Alkatetzaren 2024/10/27ko 628/2024 Ebazpenaren bidez (azaroaren 13ko 662/2024 Ebazpenaren bidez aldatua), hasiera batean onetsi zen Izaskun Rodriguez Maritxalar andreak sustatutako xehetasun-azterlana, 2. poligonoko Albistur kaleko 63 B zk.ko 588 partzelan dagoen etxean arkupea eraikitzeko, UE-22 unitate osora zabalduz.

Dokumentua Jokin Pastor Arriazu arkitekto teknikoak idatzi zuen, eta 2024/09/24an zen (sarrera-erregistroaren zenbakia: 2650/2024) eta 2024/11/5ean zen (sarrera-erregistroaren zenbakia: 3071/2024) aurkeztu.

Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea jendaurrean jarri da 20 eguneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 242. zenbakian 2024/11/28an argitaratutako ediktuaren bidez, eta Diario de Noticias egunkarian, 2024ko azaroaren 15ean, eta Diario de Navarra egunkarian 2024ko

*Ayuntamiento.*

*4.) Notificar este acuerdo a todo el personal municipal junto al calendario aprobado.*

*Doña Izaskun Rodriguez Maritxalar abandona la Sala de Plenos.*

**5.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PROMOVIDO POR DOÑA IZASKUN RODRIGUEZ MARITXALAR.**

*Por resolución nº 628/2024 de la Alcaldía del día 27/10/2024, modificada por la resolución 662/2024, de 13 de noviembre, se aprobó inicialmente el estudio de detalle promovido por doña Izaskun Rodriguez Maritxalar para construcción de un porche en la casa sita en la calle Albistur nº 63 B, parcela 588 del polígono 2 y extendiéndose a toda la unidad UE-22.*

*El documento ha sido redactado por el arquitecto técnico Jokin Pastor Arriazu y presentado el día 24/09/2024 (nº de registro de entrada 2650/2024) y el día 5/11/2024 (nº de registro de entrada 3071/2024).*

*Conforme a lo dispuesto por el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el expediente ha sido sometido a información pública durante el plazo de 20 días mediante publicación del edicto en el Boletín Oficial de Navarra nº 242 el día 28/11/2024, en el*

azaroaren 19an.

*Diario de Noticias el día 15 de noviembre de 2024,  
y en el Diario de Navarra el día 19 de noviembre de  
2024*

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

*Durante dicho plazo no se ha presentado  
ninguna alegación.*

Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki  
du:

*Por unanimidad, el Pleno acuerda:*

1.) Izaskun Rodriguez Maritxalar andreak  
aurkeztutako xehetasun-azterlana behin betikoz  
onartzea, Albistur 63B kalean dagoen etxean portxea  
egiteko. 2. poligonoko 588. Lurzatian eta EB-22  
unitate osoan aplikatu daitekena.

*1.) Aprobar definitivamente el estudio de  
detalle promovido por doña Izaskun Rodriguez  
Maritxalar para construcción de un porche en la  
casa sita en la calle Albistur nº 63B, parcela 588  
del polígono 2 y aplicable a toda la unidad UE-22.*

2.) Erabaki hau Nafarroako Aldizkari  
Ofizialean argitaratzea.

*2.) Publicar este acuerdo en el Boletín  
Oficial de Navarra.*

3.) 1/2027 Legegintzako Foru Dekretuaren  
72. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako  
Gobernuari igortzea, 10 eguneko epean, behin  
betiko onetsitako xehetasun-azterketaren testu  
bategina, egindako txostenen kopiaekin batera.

*3.) De acuerdo a lo establecido por el  
artículo 72 del Decreto Foral Legislativo 1/2017,  
remitir al Gobierno de Navarra, en el plazo de 10  
días, el texto refundido del estudio de detalle  
aprobado definitivamente junto con copia de los  
informes emitidos.*

4.) Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea.

*4.) Que se notifique el presente acuerdo a la  
promotora.*

Izaskun Rodriguez Maritxalar andrea itzuli da  
bilera aretora.

*Doña Izaskun Rodriguez Maritxalar vuelve  
la Sala de Plenos.*

**6.-PARTAIDETZAZKO TOKI-  
GARAPENENKOEKONSTRATEGIEN  
DEIALDIAREN ARABERA IZAPIDETUTAKO  
LAGUNTZA-ESKAERA BERRESTEA:  
SUSTATZAILE PUBLIKO ETA PRIVATUAK,  
NAFARROAKO 2023-2027 NPEPEAREN  
ESPARRUAN.**

**6.-RATIFICACIÓN A LA SOLICITUD DE  
AYUDAS TRAMITADA CONFORME A LA  
CONVOCATORIA DE LAS ESTRATEGIAS DE  
DESARROLLO LOCAL PARTICIPATIVO:  
PROMOTORES PÚBLICOS Y PRIVADOS, EN  
EL MARCO DEL PEPAC 2023-2027 EN  
NAVARRA.**

2024ko urriaren 1eko 199. Nafarroako

*En el Boletín Oficial de Navarra nº 199 del*



Aldizkari Ofizilaeen argitaratu da 271E/2024 Ebazpena, irailaren 10ekoa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez aldatzen baitira 7119.02.01 azpineurriaren ("Estrategiaren esparruan hautatutako eragiketen exekuzioa: kanpoko sustatzaileak") oinarri arautzaileak, kontuan izanda zer lankidetzeta-hitzarmen sinatu diren tokiko ekintza taldeekin beren partaidetzazko landa garapenaren estrategiak (LEADER) gauzatzeko, Nafarroako 2023-2027 NPEPEaren esparruan.

Udal honek proiektu hau garatu nahi du: "Herri hezitzaileak sortzen".

Alkatetzaren 2024/12/12ko 733/2024 ebazpenaren bidez, dirulaguntza eskatu zen Lesakako Irain eskola publikoan parke bat egokitzeko.

Aipatutako proiektua ikusita, Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) Nafarroako 2023-2027 NPEPEaren esparruan laguntza lortzeko izapidetutako eskaera berrestea.

2.) Alkateari ahalmena ematea dagokion espedienteak izapidetzeko.

## **7.-ARROZTEGIA PLATAFORMAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

2024ko abenduaren 26an, 3560/2024 sarrera-zenbakiarekin, Aroztegia plataformak Aroztegiako auzipetuei elkartasuna adierazi eta absoluzioa eskatzeko mozioa aurkeztu zuen.

Eneko Fernandez Maritxalak zinegotzi

*día 1 de octubre de 2024 se publica la Resolución 271E/2024, de 10 de septiembre, del director general de Desarrollo Rural, por la que se modifican las bases reguladoras, aprobadas por resolución 178E/2023, del 16 de agosto, de la submedida 7119.02.01 "Ejecución de las operaciones seleccionadas en el marco de la estrategia: promotores externos", conforme los convenios de colaboración suscritos con los grupos de acción local para la ejecución de sus estrategias de desarrollo rural participativo (LEADER), en el marco del PEPAC 2023-2027 en Navarra.*

*Este Ayuntamiento pretende ejecutar el siguiente proyecto: "Creando pueblos educadores".*

*Mediante la resolución 733/2024 de la Alcaldía del día 12/12/2024 se solicita subvención para el acondicionamiento de un parque en la escuela pública Irain de Lesaka.*

*Visto el proyecto mencionado, el Pleno, por unanimidad, acuerda:*

*1.) Ratificar la solicitudes tramitada a fin de obtener ayuda en el marco del PEPAC 2023-2027 en Navarra.*

*2.) Facultar al Alcalde para tramitar el correspondiente expediente.*

## **7-MOCIÓN PRESENTADA POR LA PLATAFORMA AROZTEGIA.**

*El 26 de diciembre de 2024, con el número de entrada 3560/2024, la plataforma Aroztegia presentó una moción para solidarizarse con los procesados de Aroztegia y pedir su absolució.*

*La moción ha sido leída por el Concejal Sr.*



jaunak irakurri du mozioa eta hauxe da bere edukia: *Eneko Fernandez Maritxala y su contenido es el siguiente:*

“Aroztegiako Auzipetuei Elkartasuna Adierazi eta Absoluzioa Eskatzeko.

Aroztegiako proiektuak, 340 biztanle inguru dituen Lekarozko herrian hotela, golf zelaia eta 228 luxuzko etxebizitza egitea planteatzen du. Baztango etxeen %36a etxe hutsak edo bigarren etxe bizitzak direla jakinik, hasieratik nabarmena izan da proiektu honen izaera espekulatzaila. Lekaroztarrek eta Baztandarrek behin eta berriz proiektu honen kontrako iritzia adierazi badute ere, Nafarroako Gobernuak UGEpa (Udalez Gainekeo Eragina duen Plana) gisa onartuz proiektu hau inposatzen tematu da. Modu honetan, Nafarroako Gobernuak herritarren interesak defenditu beharrean, interes pribatu eta espekulatzailak defenditu ditu, herritarrak inposizio honen aitzinean beren burua defenditzera behartuz.

Hondar urteetan, Aroztegia proiektuaren kontrako oposizioan parte hartu duten Baztandar herritar eta ordezkariak jazarpen judizial eta ekonomiko nabarmena pairatu dute. Proiektu honek pelotazo urbanistiko bat burutzea du helburu, eta Nafarroako Gobernuak UGEpa onartu izanak Baztango instituzioen eskumenak eta herritarren erabakitze gaitasuna urratu ditu.

Prozesu honetan, enpresa pribatu baten mesedetan, demokrazia eta herritarren borondatea alde batera utzi dira. Baztandarrek beren etorkizunaz erabakitze duten eskubidea urratu dute, herri eta nekazal lurak desjabetuz, baliabide naturalak kaltetuz, eta desegituraketa soziala zein hizkuntza eta kulturaren gainbehera eragingo lukeen proiektua bulkatuz. Hau Euskal Herrian historikoki eman den zapalkuntza eta inposizioaren bertze adibide nabarmena da, herri zapaldu eta okupatua gairela berretsiz.

Horrez gain, 2021ean akanpada baten bidez Aroztegiako obrak geldiarazteko desobedientzia ekimena aitzin eramateagatik zazpi auzipetuek pairatzen duten egoera salatu nahi dugu: epaiketa izanen dute eta denera 20 urteko kartzela eta 56.000 euroko fidantza eskatu diete zigor gisa. Ez da zilegi eta ez da bidezkoa herritarrak eta ordezkariak kriminalizatzea denenak diren lurak eta baliabideak defendatzeagatik.

Horrenbertez, udal honek honako hau erabakitzen du:

1. Elkartasuna adieraztea Aroztegiako obra gelditzeagatik auzipetutako zazpi herritarrei, eta beraien absoluzioa eskatzea.
2. Baztango herritarrek eta ordezkariak prozesu honetan jasan duten jazarpen judiziala eta ekonomikoa salatzea.
3. Herrien burujabetza eta erabakitze eskubidea aldarrikatzea, eta pelotazo urbanistiko eta inposizioen aitzinean Euskal Herriko herritarrek beren etorkizunaz erabakitze duten eskubidea defendatzea.
4. Otsailaren 1ean Iruñean eginen den manifestazio nazionalean Udal honen atxikimendua adieraztea, eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egitea.
5. Nafarroako Gobernuari UGEpa gelditzeko eskatzea, bere erantzukizuna baita proiektua behin

betirako gelditzea.”

Ione Fagoaga andreak hauxe adierazi du: “gure taldekideak, Geroa Bai Baztanekoak, beti ados egon dira proiektu honekin, beraiek aztertu dute eta beti erran dute beraien ustez, eta guk ere hala pentsatzen dugu, lana ekarriko duela Baztanera, eta gainera hori, beraiek ados daude. Orduan, guk, gure taldekideen kontra ez gara joango. Gero, bakoitzak bere ikuspuntua du eta guk hori errespetatzen dugu, baina kontutan eduki behar da, momento batean saiatu egin zirela galdeketa bat egiten eta EH-Bildu Baztan taldeak eta Baztango Ezkerra taldeak ezetz erran zutela. Orduan, ez zaigu gustatzen nola egin zen prozesua eta orain ere nola idatzi den mozioa ezta. Gure bozka horregatik, eta gure taldekideeri kontrari ez eramateagatik, ezezkoa izanen da.”

Bozketa egin ondoren, EH Bilduko zazpi zinegotzien aldeko botoarekin eta Geroa Bai lau zinegotzien kontrako botoarekin, honakoa erabaki da:

- 1.) Aroztegia plataformak Aroztegiako auzipetuei elkartasuna adierazi eta absoluzioa eskatzeko mozioa onartzea.
- 2.) Erabaki hau Aroztegia plataformari jakinaraztea.

## **8.-ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Zinegotzi guzietan pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkutatik gaur arte Alkateak emaniko ebazpenen zerrenda, 703/2024 ebazpenetik 790/2024 ebazpena arte eta 1/2025

*Dña. Ione Fagoaga señala que "nuestros compañeros de grupo, los de Geroa Bai Baztan, siempre han estado de acuerdo con este proyecto, ellos lo han analizado y siempre lo han dicho y nosotros también lo pensamos, que va a traer trabajo a Baztan, y además eso, ellos están de acuerdo. Entonces nosotros contra nuestros compañeros no vamos a ir. Luego cada uno tiene su punto de vista y nosotros lo respetamos, pero hay que tener en cuenta que en un momento dado intentaron hacer una consulta y el grupo EH-Bildu Baztan y el grupo Baztango Ezkerra dijeron que no. Entonces, no nos gusta cómo se hizo el proceso y ahora tampoco cómo se ha redactado la moción. Por eso nuestro voto, y por no llevar en contra a nuestros compañeros, será negativo. "*

*Producida la votación, con el voto a favor de los siete concejales de EH Bildu y el voto en contra de los cuatro concejales de Geroa Bai, se acuerda:*

- 1.) *Aprobar la moción de la plataforma Aroztegia, solidarizándose con los procesados de la plataforma Aroztegia y solicitando su absolución.*
- 2.) *Comunicar el presente acuerdo a la plataforma Aroztegia.*

## **8.-CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.**

*Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía, desde la última sesión hasta hoy, desde la nº 703/2024 hasta*

ebazpenetik 3/2025 ebazpena arte. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

la nº 790/2024 y desde la nº 1/2025 hasta la nº 3/2025. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

### **9.-OSOKO BILKURAREN KONTROL-JARDUERA. ESKARI ETA GALDERAK.**

Jose Luis Echegaray Andueza jaunak kreditua transferitzeko zenbait ebazpeni buruz galdetu du (774, 775, 778, 7780, 781 eta 787 zenbakidun ebazpenak) (21,22,23,24,25,26 zenbakidunak); gaineratu du langileen gastuak ez badira, ez direla legezkoak; 2 lege daude hori arautzen dutenak, eta horiek onartzea Osoko Bilkurari dagokio, eta ez Alkatetzari. Idazkariari galdetu dio legezkoa den.

Idazkariak adierazi du kontu-hartzaitzaren ebazpenak direla, eta, beraz, eskatu du hurrengo bilkurara atzeratzea erantzuna, espedienteak ikusteko, eta, hala badagokio, kontu-hartzailearen txostena ikusteko.

Alkateak aipatu du gaia hurrengo Ogasun Batzordean aztertuko dela eta hurrengo Osoko Bilkuran erantzuna eman

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hogeta bederatzi minutuak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

### **9.-ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

*Don José Luis Echegaray Andueza pregunta por varias resoluciones (resoluciones nº 774, 775, 778, 779,780, 781 y 787) de transferencia de crédito (nº 21,22,23,24,25,26); añade que si no son gastos de personal no son legales; hay 2 leyes que lo regulan y su aprobación procede al Pleno y no a la Alcaldía. Pregunta por su legalidad a la Secretaria.*

*La secretaria comenta que son resoluciones de la Intervención por lo que solicita se posponga la respuesta a la siguiente sesión para ver los expedientes y, en su caso, disponer del informe del Interventor.*

*El alcalde dice que el asunto será examinado en la siguiente Comisión de Hacienda y contestado en el siguiente Pleno.*

*Siendo las diecinueve horas y veintinueve minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretaria, certifico.*